



ASIERIMAZ

Bigarrenena maisutasunez

Perfekzioaren eredu

Beñat Rezustari 22 eta 5 irabazi ondoren lortu du buruz buruko bere bigarren txapela Jokin Altunak; hasi eta buka, erakustaldi bikaina eman du amezketarrak

Josu Artutxa Dorronsoro

Hasiera batean, 2014ko Promozio Mailako buruz buruko finalaren errebantxa izan behar zuen atzoko partidak. Artolak, orde, asteartean jakinarazi zuen ez zuela jokatu, arazo fisikoengatik. Ondorioz, 3. eta 4. postuen arteko partida irabazi zuen Beñat Rezusta bergararra izan zen Altuna III.aren aurkako finala jokatu zuena. Eskualdeko derbia, beraz, Aspeko bi pilotariren arteko final berri bat bilakatu zen.

Historia egiten jarraitu nahi zuten bi gipuzkoarrek. Altuna da 25 urterekin 8 finalera heldu den pilotari bakarra. Rezustak, berriz, atzelari berri baten izena idatzi nahi zuen txapelketaren palmaresean. Hala ere, amezketarra zen faborito garbia eta berri egokitu zitzaion lehen sarea. Etxetik prestatuta eramandako plana gauzatu zuen lehen tantan amezketarrak: sarea luze atera, eta ondoren, errestoari gantxo bikain batekin erantzun.

Ondoren, beste bost tanto egin zituen jarraian. Lehena, bi pilotariek airez sekulako pilotakadak jo ondoren, bi paretarekin amaitu zuen Altunak; bigarrena, sake-errematearekin lortu zuen; hirugarrena, atzean; laugarrena, sakez; eta azkena, ordura arteko gogorrena (25 pilotakada), defentsan bikain aritu ondoren, beste gantxo baten bitartez. Orduan eskatu zuen bergararrak lehen atsedena.

JAUN ETA JABE

Kantxara bueltan, handiak ematen jarraitu zuen Altunak, tantoak menperatzen. Gainera, Rezustak galdu zuen hurrengo tantoa, pilotakada ikaragarria jo eta kontrakantxara bidali ondoren.



Beñat Rezusta eta Jokin Altuna atzo, Bilboko Bizkaia pilotalekuan jokaturako Buruz Buruko Txapelketako finaleko une batean. ASIERIMAZ

Segidan, berriz, Altunak galdu zuen tantoa, sotamanoz ezker horman gehiegi loratu ondoren.

Rezustak, baina, ez zuen asmatu bere lehen sakearekin, eta Altunak berehala heldu zion berriro tantoa menperatzeari. Horrela lortu zuen bere zortzigarren tantoa; bederatzigarrena, berriz, sake-errematean. Rezustaren bigarren tantoa ere Altunak galdutakoa izan zen; dejada egiten hasi eta txapa azpira joandako pilotakada. Rezustak bat bera ere egin gabe jarraitzen zuen, eta beste pilota bat ere bota zuen kontrakantxara.

Hamahirugarren tantoa izan zen arratsaldeko gogorrenetari-

koa. Rezustak hartu zuen tantoaren gidaritza; ezkerrez pilotakada luzea jo ondoren, Altunak zarpigarren koadrotik boleaz erantzun zion, eta dejada zoragarri batekin amaitu zuen bergararrak. Hurrengo sarea bikain gurutzatu zuen Rezustak, eta tantoa ere ederki amaitu, zehaztasun handiko dejada batekin. Bazirudien erreakzio bat etor zitekeela, eta hurrengo tantoa ere berak amaitu nahi izan zuen, baina txapan jo zuen pilotak.

Lehen atsedena luze bueltan, joko berarekin jarraitzen zuen Altunak. Ezker hormara baztertutako bi pilotakadari esker, aldea handitzea lortu

zuen; segidan, tanto berri bat egin zuen atzean: 4 eta 15. Rezustak tantoa menperatzen zuenean ere, Altunari ematen zion azken aukera, eta noski, aurrelariak ez zuen barkatu. Hala, 18 eta 5eko markagailuarekin heldu ziren bigarren atsedena luze.

ELASTIKO GORRIA, PODIUMEAN

Handik aurrera, era guztietako tantoak egin zituen amezketarrak, bata bestearen atzetik eta erraztasun handiarekin. Bigarren zatian, beraz, erabat menperatu zuen aurkaria; lehen atsedena ondoren, 10 eta 1ekoa izan zen partziala.

Azkenean, Rezustari buruz

gain igarotako pilotakada bati esker lortu zuen txapela eman zion tantoa: 22 eta 5. Partida amaitu eta berehala, harmailera joan zen, arrebari besarkada estua ematera. Ondoren, gauza bera egin zuen txapelketan zehar aholkulari izan duen Gorka lehengusuarekin.

Momentu hunkigarriekin jarraitzeko, txapela janzteko unea heldu zen. Txapelarekin batera, gainera, lehen aldiz, hurrengo urtean zehar jantzita eramango duen elastiko gorria jantzi zioten Altunari. Bigarren buruz buruko txapela lortu du hiru final jokatu ondoren. Historia egiten ari da eta hazten jarraitu nahi du.



ASTELEHENA, 2021EKO EKAINAK 21

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus

Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:





FINALEKO ESTATISTIKAK

Rezusta	5
Altuna III	22
Egindako tantoak. Rezustak 3, Altuna III.ak 17 (horietatik 5, sakez)	
Galdutako tantoak. Rezustak 5, Altuna III.ak 2.	
Pilotakadak. 209. Rezustak 97, Altuna III.ak 112.	
Iraupena. 45 minutu eta 14 segundu.	

ALTUNA III.AREN IBILBIDEA

Final-laurdenak

Donostia, 2021/05/22

Ezkurdia	15
Altuna III	22

Finalerdia

Bilbo, 2021/05/30

Zabaleta	8
Altuna III	22

Finala

Bilbo, 2021/06/20

Rezusta	5
Altuna III	22

REZUSTAREN IBILBIDEA

Final-zortzirenak

Bilbo, 2021/05/16

Bengoetxea	14
Rezusta	22

Final-laurdenak

Idiazabal, 2021/05/21

Elezkanoli	8
Rezusta	22

Finalerdia

Iruñea, 2021/05/29

Rezusta	16
Artola	22

3. eta 4. postuak

Irun, 2021/06/06

Zabaleta	8
Rezusta	22

Finala

Bilbo, 2021/06/20

Rezusta*	5
Altuna III	22

*Artolaren lesioagatik jokatu du, Zabaletari irabazi ondoren.

Elektrizitatea eta magia



Analisia Iñaki Lizaso

Erakustaldia. Magia. Bi hitz horiek laburtu dezakete Altuna III.ak eta Rezustak jokatuako finala.

Goitik behera, hasieratik amaierara nagusitu da Amezketa azitia. Rezustak tarteka lanak eman badizkio ere, aukerarik apenas eman dio Jokinek. Sake bakarra erantzun dio botez bergararrak Altunari. Sakeak gainera abiadura handiz ateratakoak izan direla kontuan hartu-

ta, sake-errematean ez bazen, bigarren pilotakadaz agintera igaro da ia uneoro Altuna.

Kolore guztietako tantoak egin ditu Jokinek: bi paretak, ezker airez, atzean eginikoak, sakez.. esaterako, 9-1ekoa perla ederra izan da, ezker airez azpitik efektuarekin zabalean goxo pausatu duena. Atzean egindako tantoek ere distira izugarria izan dute. Eskuin beso horri elektrizitatea dario. Rezustaren ezker besoa berriz lokartua egon dela pentsa litekeen arren, Altunak ez dio utzi esnatzen. Hor egon da gako.

Rezustak oso tanto gutxitan izan du Jokin seigarren koadroko marraren atzetik. 3-10ekoa izan da merezimenduz egin duen lehena. Pilotakada ikusgarria jo du; Altunak atzeraka lasterka egin eta hankak zazpian zituela pilota oso zaila eraman ostean eta eskuinez txokoan

eginiko dejada batez txost eginez lortu du tantoa. Azken emaitza 22-5. Lehenago esan bezala, erakustaldia.

Bi tanto gehiago besterik ez ditu egin Rezustak; jarraian, gainera, bi besterik ez ditu egin. Hortxe Altunaren nagusitasunaren isla.

Altunak defentsarako ziren pilotakadak erasorako baliatu ditu. Ezker airez pilota astindu du eta eskuinez pilota oso atzean jarri du uneoro. Aukera izan duen zehaztasunez amaitu du tantoa. Elektrizitatea eta magia nahasten dituen garaiezina bihurtzen da.

Merezimendu osoz bere bigarren buruz buruko txapela irabazi du, eta ziur ez dela azkena izango. Izan ere, pilotari oso gutxi igaro dira esku pilotako historiara. Eta okerrik ez, Altuna historiara pasako da. Horretarako guztia du: magia, lana eta gero

eta sendotasun handiagoa. Berrezko pilotaria da eta pilotan jokatzeo jaio zen. Rezustari buruz zer gehiago esan, bada, borrokatzeo eta lanerako zegoen arren, gaurkoa ez zen bere finala.

Egiari zor, nahiz eta araudian halaxe ipini, behin txapelketan kaleratua izan den pilotari batek ez luke finalik jokatu beharko. Rezustak berea egin du, eta ahal duen hobekien. Bere lana da, bere ofizioa. Baina txapelketa honen bigarren postua, gutxienez, Iñaki Artolarena izan beharko luke. Bide batez, animorik handienak Iñaki Artolari, ez zion graziarik egingo hirugarren postuko garaikurra jasotzeak finale-rako txartela irabazi eta gero.

Eta amaitzeko, enpresek gaur ere berea egin dute. Birritan. Lehenik, aspalditik pilotalekuek ikusleak sartzeko baimena zegoen lehen aukeran, ikuslerik gabe jokatu da finala. Bestetik, Pedro Ruizek, profesionalek azken partida jokatu du, 23 urterekin. Ez goaz bide onetik.

Zorionik handiena Jokini!

Maisu lana



Analisia Miren Larrarte

Iritsi da Altunak hainbestetan amestutako eguna, baita ondo aprobetxatu ere. Amezketarraren partida bikoain bat ikusi dugu, uneoro aurretik joan da Beñat Rezusta-

ren aurka, zazpi eta hutseko partzialarekin hasiz. Perfekzioz oso gertuko final bat jokatu du; hasieratik amaierara bitarte kontrolpean eraman du jokoaren dinamika, lehengusua aholkuek lagunduta.

Aurtengo buruz buruko txapelketa ezberdina izan da azken urteetakoekin alderatuta. Ikusi da atzelariak ere buruz burukoa gerra emateko prest daudela. Gaur egungo pilotaren jokoa ikusita harritzekoa izan ohi da atzelari bat finalera iristea, aurrelariak ohituago baitaude aireko jokoa, baita errematatze ordutan ere. Beraz, goraipatzekoa da Rezustaren aurtengo buruz buruko txapelketa.

Bestalde, nahiz eta txapela eskualdera ekarri, pena handia izan da Artolaren hutsunea, baina gorputzak ezetz esaten duen hura berreskuratzea tokatzen da. Eskualdeko bi pilotarien arteko finala genuen berriro ere aurretik. Alde horretatik, datuek pozgarriak izaten jarraitzen dute; ikusten da hemengo pilotariak egurrean dabilzala.

Hala ere, egia da, lesioak tarteko, Artola zorte txarra izaten ari dela aurtengo urte honetan, baina guztiok izaten ditugu bolada txarrak eta seguru aurretik urte hobeak dituela zain. Ea Altunak esan duen bezala, aurrerago bi hauen arteko final bat ikustea egokitzen zaigun.

Finalari begira, aipatu bezala, ia hobetu ezinezkoa izan da Altunaren partida, maisu lana izan da. Oso lasai eta nagusitasunez ikusi da partida osoan zehar,

Beñati ez dio partida estutzen ere utzi. Zazpi eta hutsekoa ikusita, partidaren dinamika aldatu nahian, jokoa gehiago mugitzen saiatu da Rezusta, aukera izan duen lehenengoan tantoa errematatzeo asmoz. Nahiz eta tanto batzuk lortu, lan oso zailak zituena aurretik eta ezin izan du askoz gehiago egin.

Oso pozik eta harro egoteko arrazoiak badituzte amezketar eta Altunaren jarraitzaileek. Aurtengo finalean ere animoak etxetik eta pantailaren atzetik ematea egokitu zaie, baina geroz eta gertuago gaude publikoz betetako partidak bizi eta frontoietako hutsune handi horiek berriro bete ahal izateko.

Zorionak Jokin! Ondo merezi-tako txapela. Eta animoak Artolarentzat. Ea lehenbailehen kantxaz gozatzen ikusten dugun berriro.

BEARTZANA
J A T E T E X E A

San Bartolome, Amezketa
943 650 695 / beartzana.com

Aupa Jokin, beti txapeldun!

logikaline

www.logikaline.com info@logikaline.com
San Joan Pza, S/N, 20269, Abaltzisketa (Guipúzcoa)

«Txapelketa oso ona izan da niretzako, hasieratik bukaerara asko disfrutatu dut»

JOKIN ALTUNA PILOTARIA

Kantxara atera den momentutik partidari sartu dela esan du amezketarrak, lasai zegoela; argi zuen bere partidua egitera aterako zela, eta tantoz tanto, horixe erakutsi du markagailua 22ra iritsi den arte



ASIER IMAZ

Erredakzioa

Pozik azaldu da Jokin Altuna amezketarra ETB1ek partida amaitu berrian egindako elkarriketan. Txapela janztea urte guztian zehar egindako lanaren emaitza izan dela esan du eta fi-

nala jokatzetik izan ez duen Iñaki Artola alegiarra izan du gogoan. Esan du etorkizunean bere aurka final bat jokatu nahiko lukeela: «Seguru nago berak ere irabaziko duela txapel bat eta berarekin ospatuko dudala egun horretan».

Xabier Euzkitzek esan berri du: Pilotari magikoa da Altuna.

Magikoa ez dakit, baina oso pozik nago. Txapelketa oso ona izan da niretzako, hasieratik bukaerara asko disfrutatu dut. Egia esan, kantxara atera naize-

nean lasaiago nengoen, izan ere, lo ez dut hain ondo egin, eta beti edukitzen duzu finala jokatzeko tentsio hori. Berotzera atera naizenetik, ordea, ondo sartu naiz partidari. Markagailua 22-sean geratu da, bigarren zatian hautsi egin da partida,

baina hasieran tanto gogorrak asko izan dira. Erdi parean pilota uzten banion, asko ematen zion berak, txisparekin ikusten nuen. Finaletan markagailuan atzetik hasteak, ordea, pisatu egiten du eta nik uste hor egon dela gakoa.

Saketik min handia eman diozu. Espero genuen sakearekin nahastu egingo zenue-la, baina ez da horrela izan. Guzti-guztiak txokora atera dituzu.

Asteazkenean zehar ere esan dut, nire partida egin behar nuela. Azken batean, txapelketa guztian zehar gauza bat egiten ari bazara, eta gero finalera etorrita mirariak egin nahian hasten bazara, ez duzu asmatzen. Banekien nahiz eta ezkerrean atera, sakeari abiadura ematen banion min egingo niola. Harritu nau hasieran airera ez zelako batere etortzen, aurrera egiten zuen, eta gero atzera abiatzen bazara, lan zailak dira, eta nik uste, aprobe-txatu egin dudala hor sake-erremate batzuk egiteko, eta min egin diodala.

Laugarren txapela, 25 urterekin, bigarrena buruz burukoa.

Txapela, lan guztiaren amaiera-ko pastel bat bezala da, sekulako poza ematen dizu, lan handia egiten duzunean, azkenean, motibatu egiten zaitu gehiago jarraitzeko, baina tira, txapeldun atera izan ez naizenean ere, pilotariak lan handia egiten du. Gogoratu nahi nuke, baita ere, Iñaki Artolaz. Pena handia hartu dut berak finala jokatzeko aukerarik izan ez duelako, egia esan, merezi zuen jokatzeko eta suete txarra izan du. Ilusioa egingo lidake etorkizunean elkarren aurka final bat jokatzeko aukera izango bagenu. Txapela atera izan dudanez ospakizunetan, eta txapelik jantzi ez dudanez ere beti hor egon da eta seguru nago berak ere irabaziko duela txapel bat eta berarekin ospatuko dudala egun horretan.

«Jokatzeko ekarri dudan moduarekin nahiko konforme nago»

BEÑAT REZUSTA PILOTARIA

Finala galduta «pozik egotea zaila» den arren, egindakoarekin behintzat gustura geratu da bergararra; ospatzeko arrazoia baduela esan du eta datozen egunetan tarte hartuko duela ospakizunerako



ASIER IMAZ

Erredakzioa

Partida amaitu berritan, buru-makur baina egindako lanarekin «nahiko gustura» agertu da Beñat Rezusta. ETBko kameren aurrean eginiko adierazpenetan, Altunaren lan «ezin hobea» go-raipatu du behin baino gehiago-tan bergararrak.

Ezin izan duzu. Barrutik zer esango zenuke?

Beti nahi duzu gehiago eta 22-5 galduta pozik egotea ezinezkoa da. Berak ezin hobeto jokatu du, hasieratik partidaren ondo sartu da, eta saketik min handia egin dit. Gero ni dominatzera pasatzen naizen tanto apur horietan ere, defenditzen oso ondo ikusi dut, pilota jo eta berehala ondo kolokatuz, pilota ondo gozatuz. Ez da batere erraza izan. Nire aldetik, eduki ditudan pilota ba-

tzuetan gehiago ez gozatu izanaren pena daukat. Bostean galtzeko desastre handi bat ez dut uste izan denik.

Zurea ematen saiatu zara.

Izan balitz ni oso-oso gaizki sentitu naizela edo bukatu ostean sentitzen dudala oso oker jokatu dudala, baina ez da kasua izan. Eduki dudanean saiatu

«Berak ezin hobeto jokatu du, hasieratik partidaren ondo sartu da eta saketik min handia egin dit»

naiz dominatzen, bera lekutik ateratzen, baina, ez dut lortu, edo oso gutxitan. Hori bere meritua da, gauzak nik baino askoz hobeto egin dituelako. Bostean galduta pozik egotea zaila da, baina jokatzeko ekarri

dudan moduarekin nahiko konforme nago.

Asteazkena bitarte ez zenuen jakin finala jokatu zenuenik.

Aitzakiarik jartzeko ez daukat. Berandu jakin nuen, baina nik berdin-berdin jarraitu dut entrenatzen. Iñakiren kontra galdu arren, hirugarren eta laugarren posturako partida izan nuen, eta prestaketa berdina izan da.

Partida ostean, gertukoekin elkartuko zara.

Egoera ez da errazena horrelako ospakizunentzat, baina azken aldian hainbeste elkartu gabe geunden lagunak, eta irabazi edo galdu garbi genuen gertukoak elkartu, eta afaritxo bat egingo genuela. Txapelketa amaitu da, eta nik ere egun batzuk libre izango ditut, zer ospatua badago, eta gustura ospatuko dut.

AZKEN 36 URTEETAKO FINALAK

1985		2003	
Retegi II	22	Patxi Ruiz	22
Galarza III	13	Olaizola II	7
1986		2004	
Retegi II	22	Martinez de Irujo	22
Tolosa	12	Xala	12
1987		2005	
Retegi II	22	Olaizola II	22
Tolosa	16	Martinez de Irujo	18
1988		2006	
Retegi II	22	Martinez de Irujo	22
Galarza III	9	Olaizola II	17
1989		2007	
Tolosa	22	Olaizola II	22
Retegi II	19	Barriola	10
1990		2008	
Retegi II	22	Bengoetxea VI	22
Tolosa	8	Barriola	11
1991		2009	
Galarza III	22	Martinez de Irujo	22
Retegi II	15	Olaizola II	12
1992		2010	
Galarza III	22	Martinez de Irujo	22
Retegi II	12	Xala	13
1993		2011	
Retegi II	22	Xala	22
Galarza III	19	Olaizola II	19
1994		2012	
Arretxe	22	Olaizola II	22
Errandonea	12	Martinez de Irujo	7
1995		2013	
Beloki	22	Olaizola II	22
Errandonea	15	Martinez de Irujo	7
1996		2014	
Eugi	22	Martinez de Irujo	22
Arretxe	19	Retegi Bi	9
1997		2015	
Arretxe	22	Urrutikoetxea	22
Elkoro	18	Olaizola II	19
1998		2016	
Beloki	22	Iribarria	22
Eugi	13	Urrutikoetxea	13
1999		2017	
Beloki	22	Bengoetxea VI	22
Eugi	9	Iribarria	18
1999 (2)		2018	
Arretxe	22	Altuna III	22
Elkoro	11	Olaizola II	14
2000		2019	
Eugi	22	Iribarria	22
Beloki	13	Urrutikoetxea	20
2001		2020	
Beloki	22	Jaka	22
Eugi	8	Altuna III	20
2002		2021	
Barriola	22	Altuna	22
Beloki	3	Rezusta	5



Zorionak ta eskerrik asko
bizi-pozaren pizgarri,
urrundik izan baldin bada ere
herria bultzaka ari,
beti inguruan dabilen euli
hori ohi da gogaikarri,
pilota txoko ezinezkotan
uste ez denean jarri,
orain irri ta gero tentsio,
une batzuetan larri,
topa eginaz ongietorria
hogeita bigarrenari,
beste behin ere jarri gaituzu
ingurukoak kantari,
segi horrelaxe poza banatzen
amezketar herriari.

AU PA
JOKIN!!



Amezketako Udala

Festa giroa Amezketan

Egun borobila izan da Jokin Altunaren herrian; goizean goizetik animoak eman dizkiote pilotariari eta garaipenarekin alaitasuna eta festa giroa zabaldu da herrian

Leyre Carrasco Amezketan

Amezketara sartu orduko nabari da egun berezia dela; kaleak hutsik eta tabernak beteta baitaude. Bakarkako Buruz Buruko finala hasteko minutu gutxi batzuk geratzen badira ere, herrian jada badute irabazlearen izena: Jokin Altuna.

Plazako bankuan eserita dauden bi amonek parez pare dute partiduro hutsik egiten ez duen herriaren babes mezua. *Aupa Jokin. Pelotaren magoa pilotari trebea ta ona* lelopean irakur dai-teke aurtengoan udaletxea atontzen duen pankarta erraldoia. Amezketako kaleen barrena oihuak entzun dira dagoeneko. Hasi da partidua.

Herritarren babes eta animo mezuek nahiko indar eman diote lehen minutuetan pilotariari markagailuan 0-6 buru jartzeko. Amezketatik Bilbora, eta Bilbotik Amezketara dagoen konexioa handia dela nabari da. Abestiak ez dira falta izan tartean, eta baten batzuk dantzatzera ere animatu dira.

AZKEN MINUTUAK

Txapela nork jantziko duen dudarik ez dute Beartzana jatetxean, kanpoaldean dagoen pankartak argi uzten baitu norena izango den garaipena: «Txapela batekin ezin bi buru tapatu. Bi txapelekin buru bat bai ordea. Aupa Altuna!».

Markagailua 5-21 eta ikusle guztiak garaipena ospatzeko prest daude jada; zutik eta irribarre handi batekin. Iritsi da azken tantoa, eta horrekin batera bigarren txapela. Oihuak, berrakadak eta emozio-malkoak dira nagusi oraingoan Amezketan. Txalo zaparrada batekin eman diote amaiera partiduari, baina ez egunari.

Izan ere, ospakizun handi bat zuen zain pilotariak bere herriko plazan. Aurrezku eta bertsoak, herritarren txaloak eta festa izan da nagusi.



Altunari atzo partid-a eta gero herrian egindako harreraren argazki guztiak:
www.ataria.eus



Pilotariaren garaipena ospatzeko bi gazte besarkatzen. L.C.



Ume bat partidua telebistan ikusten. L.C.



Beartzana jatetxearen aurrealdean dagoen pankarta. L.C.



Gazte bat garaipena ospatzen. L.C.



Udaletxeko aurrealdean dagoen pankarta. L.C.




Gazte bat pilotariaren garaipen hitzak entzuten L.C.





ERREAKZIOAK



«Buruz Jokin Altuna oso bat ikusi dugu»

LUIS GALARRAGA
PILOTA ADITUA, BIDANIA-GOIAITZ

Jokin Altuna handi bat ikusi dugu. Rezusta ahal duena jokatzen, edo Jokinek utzi diona jokatzen. Hasieratik bukaeraraino partida oso konpletoa. Aurreneko tantotik oso fresko ikusi da; eskuetatik oso ondo ateratzen zitzaion eta hankak sueltu. Buruz Jokin Altuna oso bat ikusi dugula esango nuke, eta baita fisikoki ere. Partida estuago bat nahi genuen guztiok partidaz gehiago gozatzeko, baina nik asko disfrutatu dut, batik bat Jokin Altuna jokatzen ikusita. Lehen txapelketa jokatu zuenetik asko hobetu du, eta buruz ikaragarri irabazi duela esango nuke. Zorionak eta segi dezala horrela.



«Hasieratik izugarrizko erakustaldia egin du»

EKAITZ SARALEGI
PILOTARI OHIA, AMEZKETA

Partida ikaragarria egin du. Izugarrizko erakustaldia hasieratik bukaerara. Tantotik tantora kontzentratuta, pilotari emanez eta Rezustari jokatzen utzi gabe. Txapelketa guztian partida latzak jokatu ditu, eta finalean ere bai. Merezitako txapela da. Nik uste dut ia golpea hartu zuela, baina egunetik egunera asko entrenatzen du, profesional ikaragarria da eta objektiboak hartzen dituen lortzea ere gustatzen zaio. Ikusi da ia golpea hartu ostean, lau eta erdiko txapela irabazi zuen eta txapel honekin erremate latza. Mila zorionak eta segi dezala horrela. Ea hurrengo urtean ere Altuna eta Artola egokitzen diren.



«Dena perfektu egin du Altunak»

MIKEL ARTOLA
BOTILEROA, ALEGIA

Finalean uste dut izugarrizko partida jokatu duela Jokin Altunak. Hobeto jokatzea ere zaila da. Dena perfektu egin du. Beñat Rezustak agian zerbait gehiago jokatu zezakeen, baina utzi ere ez dio egin Jokinek. Merezitako txapelduna da Altuna. Guk etxera etortzea nahi genuen txapela, baina auzora joan da. Urruti ez dago eta gustura. Altunazaleek beste txapela bat dute. Zorionak Jokin Altunari, eta baita familiari eta bere inguru guztiari ere.

Amezketan

Etxebizitza eta Garaje berriak

Bi eta hiru logela



construcciones aierbe

INFORMAZIO GEHIAGO:

Polígono Bazurka, 49
20260 Alegia
Tel.: 943 653 546
administracion@aierbe.com

ERREAKZIOAK



«Bere mailatik gora egon da Altuna»

BEÑAT URRETABIZKAIA
PILOTARI OHIA, IKAZTEGIETA


Egia esan Jokinek oso partida borobila egin duela iruditu zait. Bere mailatik gora egon dela esango nuke eta ikaragarri jokatu duela. Txapelketa guztian erakutsi du horrela jokatu eta inork ez diola irabaziko. Oso harro nago berarekin txapelketa oso ona egin duelako. Espero dut urte askotan txapela gehiago irabaztea. Gu berarekin egongo gara, eta baita bera animatzen ere. Beste aldetik, Iñakiri ere animoak eman nahi dizkiot. Finalaren zati bat berea baitzen eta ez duelako jokatzeko aukerarik izan. Berari eskaini nahiko nioke dena.



«Heldutasun izugarria hartu du azken urtean»

IÑAKI PEREZ DE EULATE
AMEZKETAKO PILOTA BIZI ELKARTEKO KIDEA

Jokin Altuna zoriondu nahiko nuke egin duen final izugarriagatik, eta ez bakarrik finalagatik bakarrik, baizik eta egin duen txapelketa guztiagatik. Konfiantza handiarekin jokatu duela ikusi da, eta azken urtean heldutasun izugarria hartu duela uste dut. Bi gauza esango nizkioke. Iaz ikusi zuen zer den galtzea, eta aurten zer den irabaztea. Gaur zerura ez joateko eskatuko nioke, iaz ia infernura joan zen bezala. Gauza bata eta bestea bere tamainan hartu behar dira, eta bihurtik aurrera berriaz ere esfortzua eta egunerokoa etorriko dira. Eta, kontrarioak irabazten duenean bere meritua aitortu behar zaio.



«Merezimendu guztiz irabazitako txapela»

XABIER TOLOSA
PILOTARIA, ANOETA

Jokin Altuna jaun eta jabe izan da partida guztian zehar. Jokoaren ekimena berea izan da, eta Beñat Rezusta bere menpe egon da partida guztian zehar. Jokin Altunak eman duen erakustaldi eta mailarekin partida erraz irabaztea lortu du. Merezimendu guztiz irabazitako txapela dela iruditzen zait, txapelketa guztian zehar sekulako maila eman duelako. Erakutsi du buruz buru momentu honetan inork gutxik daukala kontra egitea berari. Asko pozten naiz txapela irabazi duelako eta zorionak Jokin Altunari.

Grina, ahalegina eta ardura



Lanbidearekiko errespetua ogigintzan eta gozogintzan
Egunez egun gauzak hobeto egiteko gogoia
Aparteko lehengaiak, gure premisa
Berrikuntza eta sormena funtsezkoak



Bizkaia frontoiko harmailak hutsik. ASIER IMAZ

Ikuslerik gabeko final handia

Buruz Buruko finala ikuslerik gabe jokatu dute Altunak eta Rezustak; Bizkaia pilotalekuaren kanpoaldean pilotariei babesa ematera joandako zaleek jarri dute giroa



Goian, Gorka Altuna eta Mikel Artola. Behean, Rezustaren zaleak. A.I.

Erredakzioa

Harmailetan jendea egoteko aukera dagoeneko zabalik egon arren, Buruz Buruko finalerako ez da posible izan, beraz, Bizkaia frontoian harmailak hutsik izan dira final handian. Ondorioz, giroa ez da izan gisa honetako partidetakoa.

Harmailak ikuslerik gabe, bai-

na frontoian pilotari handiak topa zitezkeen atzokoan, Juan Martinez de Irujo txapelduna kasu, komentaria lanak egitera joana; edota Iñaki Artola bera, hirugarren postuaren saria jasotzearen aitzakian frontoitik jarraitu baitzuen finala. Frontoian kanpoaldean, berriro, giro polita, animoak ematera gerturatu ziren pilotazaleek jarri zuten.



Ezkerrean, Gorka Altuna eta Jokin Altuna, partidaren aurretik. Eskuinean, Juan Martinez de Irujo, atzo, Bizkaia frontoian, komentaria lanak egitera joanda. A.I.



eizmendi anaiak

kirolak eta armategia

Kalea Berria, 19 Villabona / 943 69 26 23

«Jokin perfekzioetik gertu egon dela esango nuke»

GORKA ALTUNA
JOKIN ALTUNAREN BOTILEROA

Partidan bezala, aurretik ere «oso lasai eta zentratuta» zegoela Jokin Altuna azaldu du bere botileroak; «sekulako gozamena izan da finalean bere ondoan egotea», esan du

Asier Imaz Bilbo

Lehengusua du Jokin Altuna, eta «zeruan» dagoela horrelako finala irabazita esan du. Hasieran tentsioa izan arren, abantaila handitzen ikusita lasaitasuna areagotzen joan dela azaldu du.

Nolako sentsazioak izan dituzu partidan?

Final batean lehen tantoetan bereziki tentsioa izaten da. Dena den, segituan ikusi da Jokin oso ondo jokatzen ari zela, eta horrek konfiantza handia ematen du. Partidaren aurretik ere oso lasai



A.I.

eta zentratuta ikusten zitzaion. Bere jokoa aterako zuela pentsatzen nuen, baina ez nuen espero final batean horrelako maila emango zuenik. Beñat Rezusta jokatzeke zegoen, baina, ez dio inongo aukerarik eman. Perfekzioetik gertu egon dela esango nuke.

Altunazaleek final bat lasaitasunez ikusteko aukera izan dute.

Zeruan nago horrelako finala ira-

bazita. 7-0 hasi da segituan. Txapelketa guztian hiru partidetan hasi da irabazten, baina, final batean horrelako abantailarekin hasteak sekulako konfiantza ematen dizu. Tentsio handia kentzen duzu.

Zer aholku ematen da horrelakoetan?

Kontzentrazioa ez galtzen saiatzen zara, ahalik eta isilen egon, geldirik, molestatu gabe. Oso ondo jolasten ari zela ari nintzen

ikusten. Tanto batzuetan saiatzen zara zer edo zer esaten, agian kanpotik hobeto ikusten delako. Baina, egia esan, Jokini ez dago ezer handirik esan beharrik. Sekulako gozamena izan da bere ondoan egotea finalean.

Txapelketa borobila egin du.

Uste dut ikasi duela partidak lasaiago hartzen, horrelako egunak disfrutatzen. Jakaren artekoan, esaterako, kolpe handia hartu zuen. Beraz, esan daiteke maila bat egin duela gora buruari dagokionean. Maila honetan guztia egin behar duzu ondo, eta Jokinek joko ona egiten duenean oso zaila da berari aurre egitea.

Pena, Artolaren aurka ezin jokatutakoa.

Sekulako pena. Ze lesio zuen jakitean ikusten zen aukera handirik ez zuela izango finala jokatzeke, eta jokatuta ere ez zuela ehuneko ehuna emango. Erabaki ona hartu du. Gaztea da, eta izango ditu aukera gehiago. Ezagutzen dugun guztiok badakigu nolako pertsona. Nire kasuan, ezagutzen dudana pertsonarik onenetakoa dela esan behar dut. Pilotari eta pertsona bezala asko estimatzen dugu.

PANELFISA 
automotiveating links

 ner group

«Ziur nago indartuta aterako naizela guzti honetatik»

IÑAKI ARTOLA PILOTARIA

Buruz Buruko Txapelketa honetatik bizipen askorekin atera da pilotari alegiarra; finala ez jokatzearen gazia ezagutu du, eta baita jendearen babesaren gozoa; bereziki eskertuta dago jaso duen berotasunagatik



ASIER IMAZ

Imanol Garcia Landa Alegia

Ezin izan du azkenean desiratu-tako finala jokatu Iñaki Artolak (Alegia, 1994), finalerdian izan zuen lesioa eta gero. Buruz Buruko Txapelketaren antolakuntzak hirugarren postua eman dio, eta atzo Bilboko Bizkaia frontoian izan zen, bere garaikurra jaso eta podiumean izateko.

Behin erabaki zenuenean finala ez zenuela jokatu, zer moduz sentituzinen?

Ondo. Finalerdietako egun hartatik niretzako ez zen egun erraza izan. Alde batetik poz handia irabazi izanagatik, baina bestalde konturatu nintzen lesio handi samarra neukala. Pentsatzen nuen finala jokatzeko aukerarik izango ote nuen, eta aukera izan arren, hurrengo egunetik bertatik mediku kontuekin-eta hasi beharko nukeela. Hor egun batzuk behar izan nituen zegoena eta tokatzen zena irensteko eta onartzeko, baina fase hori pasa nuen eta azken egunetan lasaia-ego egon naiz erabakia hartu ondoren, nahiz eta ez izan nahi nuen emaitza. Lasaiago eta gozatzaren ere bai, eskertu nahian egunotan lagundu didan jendeari. Esango nuke gazi-goza dela, ez bakarrik gazitik, gozotik ere izaten ari da.

Lehen aldiz iritsi final handi batera, eta jokatu gabe gertzeak kolpe handia izan behar du.

Egia esan, bai. Gehiago edo gutxiago, aspaldi samarretik ari naiz esaten nire helburua momentu honetan pilotan nire onena ematea dela, urte askotan maila ona ematea. Hori lortzen badut gero ikusiko da emaitzak etortzen diren edo ez, baina helburu bezala hori daukat jarrita. Eta horrela izaten jarraitzen du, baina esango banu finalak berdin didala gezurra izango litzateke. Niretzat amets bat betetzea bezala zen. Finalerdiaren astean nahigabe ere pixka bat amestu egiten duzu egun horrekin. Imaginatu egiten duzu irabaziz gero hurrengo asteko entrenamenduetan zer motibazioarekin biziko zenukeen.

Gero iristen da momentua, baina ez espero bezala, dena ezberdin. Partida bukaeratik berta-

tik hasita, izan ere, partidaren atzeman nuen zer edo zer egin nuela, eta irabaziko banu ere komerkiak izango nituela. Aurreneko egunetan irentsi behar izan dut hori, baina, aldi berean, txapelketa ona egin dudaren sentsazioarekin nago. Gerora ere, egun hauetan niretzat garrantzitsua zen gauzak ondo eginaren sentsazioarekin geratzea, dena saiatu garenaren sentsazioarekin, eta alde horretatik, oso lasai nago, oso eskertuta; behin eta berriro esaten ari naiz, baina horrela da: laguntzen ari zaidan jende guztiari, animatu nauen jende guztiari... Ez dut era horretako arantzarik. Uste dut gauzak ondo egin ditugula, gertatu egin dela gertatu behar zuelako, eta alde horretatik, ahal den drama gutxien egin nahian.

Nola bizitu zenituen finalerdiaren azkeneko tantoak, konturatu zinenen min hartu zenuela?

Kuriosoa izan zen. Alde batetik, zorteaz hitz egin badaiteke, esan daiteke zorte txarra izan nuela eten hori izatearekin 17. tantoan; uste dut orduan izan zela, baina bestalde zorte ona izan nuen partida nola joan zen hortik aurrera ikusita. Momentu horretan pentsatu nuena izan zen, medikuarena joanda ere, atzematen nuenez haustura kontua izan zitekeela, ezingo zuela milagrorik egin. Gainera, hoztu egingo zitzaidan alde hori, eta aurkaria konturatu egingo zen. Eta erabaki nuen, ikusita ez zitzaidala asko falta, kale edo bale egin eta jokatzeko modua aldatzea. Sakea nuen eta ea zer gertatzen

zen. Eta zortea izan nuen. Beñatek [Rezusta] une batean akats bat izan zuen, eta ez nuen eskuinarekin jo beharrik izan eta, txirripaz esan daiteke, irabaztea lortu nuen. Alde horretatik ezin zitekeen hobeto atera.

Finalerdiaren ondoren, fisioterapeutarekin egon zara lesioa osatzeko.

Bai, hurrengo egunetan probak egin genituen lehenbailehen jakiteko zer zen. Guk normalean horrelako gauzak Gasteizen egiten ditugu, Vithas ospitalean, eta behin diagnostikoa izan genuenean, ez genekien zehazki zenbatekoa zen, baina haustura bat zegoela ikusten zen, eta hurrengo egunetik atzerapena eskatu genuen. Bagenekien oso zaila zela, baina final bat zela, merezi zuela saiatzeari, eta erabat egune-

«Oso polita izan da hiruok elkarrekin podiumean egotea»

Kantxan ezin izan izan atzo egon Iñaki Artolak, baina zuzenean jarraitu ahal izan izan finala Bilboko Bizkaian frontoian. Bere anaia Mikelekin izan zen harmailetan, eta sari banaketan podiumera igo zen.

Nola bizitu duzu finala harmailetatik?

Nik ondo bizitu dut finala. Lehen esan dudana, aurreneko astean izan bazen oso ezberdina izango litzateke. Baina denbora izan dut

onartzeko eta lasai jarraituko dut, beste partida bat bezala. Analizatzen aritu naiz, hori ezin izan dut saihestu. Beti xehetasunetan arreta jarri nahian kontra tokatzen zaigunerako.

Eta nola ikusi duzu partida, zer analisi egiten duzu?

Jokin faborito zen eta ez nuen uste inolaz ere hain erraz irabaziko zuenik, baina partida espero zen bidetik joan da. Sakatzen asko asmatu du eta gainera ha-

sieran hartu du aldea, eta Jokinen aurka horrelako alde bati buelta ematea oso zaila da. Ez dakit zein izango zen Beñaten sentsazioa, ziur aski berak ez zuen denean asmatuko, baina Jokinen aldetik erakustaldi handia izan da.

Podiumera igotzea, egin duzun txapelketaren nolabaiteko errekonozimendua izan da, eta argazkia hor geratuko da betirako.

Egia esan une polita izan da bizitu dudana. Gainera zein hiru gauden ikusita, Jokin, Rezusta eta ni, umetatik elkar ezagutzen garenak, eta estimu handia dieldan bi pertsona dira. Finala ez dut jokatzetik izan, eta gertatu den bezala gertatu da, baina hiruok hor elkartuta ikustea, buruz burukoaren podiumean, hainbat urtetan elkarren aurka jokatu, entrenatu eta abar egin eta gero, oso polita izan da.



ro buru belarri aritu gara Beasaingo fisioarekin. Uste dut lan ona egin dugula, lesioa oso ondo doala esaten didate, eta nire sentsazioak ere onak dira. Baina, usaintzen genuen bezala, nahiz eta ez genuen ikusi nahi, hiru aste ez da denbora nahikoa izan jokatzeko moduan jartzeko. Behin finala ez jokatzearabaki ondoren, orain lasaia go, datarik jarri gabe, helburua izango da azkar baino ondo jartzea. Horretarako gogoz nago, motibazioarekin, gainera esaten dute gerora ondo jarriko den lesio bat izango dela, arazorik eman behar ez liratekeena, ondo bidean behintzat, eta hori ere garrantzitsua da niretzat.

Entrenamenduren bat egiteko aukerarik izan duzu?

Ez. Hori zen asmoa, eta idealena izango zen azkeneko astean proba pare bat egin ahal izatea. Baina ikusi dugu probak berak akaso abantailarik ez lidakeela emango, eta geldirik uztea komeni zela. Lehen bi asteetan beste eskuarekin entrenatzen jarraitu nuen, finala jokatzeko itxaropen horrekin ahal nuen ondoen iristeko. Fisikoki ere ahal dudan guztia egin dut, baina azken astea iritsi zen, eta ez geunden eskuineko eskuarekin proba egiteko moduan. Beraz, lehenetsi genuen probak-eta egitea baino ondo sendatzea, lesioa ez berritzea, eta uste dut erabaki ona izan dela.

Lesioaren berri jakin zenetik, hainbatek galdetuko zizuten nola zeuden, jokatzeko aukerazenuen... Nola bizitu duzu hori?

Hasieran batik bat ez zen erraza izan. Aurretik eduki ditudan lesioekin alderatuta, oso ezberdina izan da hau, zentzu horretan, final baten atarian geundelako. Orain arte ezagutu ez dudan dimentsio bat izan da. Enpresak publiko egin arte, ez nuen esaterik izan, eta ez zen erraza izan erdi gordean eduki behar izatea. Albistea zabaldu zenean errazagoa izan zen, jendea jakinaren gainean zegoelako. Eta aurreko asteazkenean prentsaurrekoa eman eta gero, are gehiago. Nire aldetik lasaitua izan da, jendeak jakitea zer dagoen, erdi gordeta ibili gabe. Alde batetik zaila izan da, eta beste batetik, lehen esan bezala, oso polita, oso gauza hunkigarriak bizi izan ditut; deskuidatuz gero dena beste era batera izan balitz, biziko ez nituenak. Eta horretan ari naiz saiatzen, horietaz gozatzen, garrantzia ematen horiei ere. Esate baterako, inondik espero ez nuen jendea gogoratu da nire-

kin, ingurukoek sekulako babes eman didate, eta herrian animo ekitaldi moduko batzuk ikaragarri politak egin dizkidate pilota eskolatik eta abar. Esan bezala, oso polita izaten ari da aldi berean.

Mezu bat zabaldu zenuen, esanez momentu txarretan jasotako babesak duela esanahi handiagoa.

Badakit jendeak ez duela nik eskertzeagatik egiten, ezta gutxiago ere, baina nik gogo hori sentitu dut egunotan. Lesionatu nintzenetik oso aparte ibili naiz komunikabideetatik-eta; aurpegia eman behar izan denean medikuak eman du horrela erabaki genuelako, baina banuen gogo neronek hitz egiteko aukera izateko; Batez ere, eskerrak emateko jendeari, nahiz eta saiatu ezin dudalako denengana iritsi, eta guztiek jakitea nahi dut. Ikaragarria izaten ari baita, ikaragarri la-

«Garbi dudana da datari baino lesioa ondo sendatzeari emango diogula garrantzia»

«Iruditzen zait orokorrean aurtengo txapelketa positiboa izango dela aurrera begira»

guntzen dit aurrera begira ere, eta ziur nago indartuta aterako naizela guzti honetatik. Gero ere izango dira aukerak, eta orain nabil esker mezu hori zabaldu nahian.

Herriarteko Pilota Txapelketako kanporaketan, herriko pilotariak pankarta eta guzti izan zenituen babesak ematen, eta argazkia atera zenuen berriekin. Horrelako uneak berriak izaten dira.

Ezin izan dut finala jokatu, horrela tokatu delako, baina aldi berean balio izan dit konturatzeke zer bizitzaren ari garen ni eta beste batzuk azkeneko urteetan, hau da, gustatzen zaigun eta hainbeste maite dugun kirolarekin gozatzen ari garela, eta inguruan ere kirol honetaz gozatu arazteko pribilegioa dugula. Finala ez jokatuagatik ere, aurreko ibilbidea ere polita izan dela transmititu dit jendeak, beraiek ere gozatu egin dutela txapelketa honetaz. Horrekin geratu nahi nuke. Pilota eskolako festa oso polita izan zen; bakoitza bere mailan eta bere adinean, kirol beraren parte gara, toki beretik gatz, eta pilota eskolan talde bat osatuta dugu, oso polita, gauza onak eta txarrak bizi ditugunak.

Kasu honetan hala izan da, eta denetan politena hori izan zen; pilota eskolako ekitaldi hura niretzat oso hunkigarria izan zen.

Pilotarien babesak ere jasotako argi esan zuten, hirugarren eta laugarren postua erabakitzeke partidaren aurretik, finala zuzen jokatzeari zutela.

Askotan espero dena esaten dugu guk ere, noski, elkarriketetan, baina badakit justu Beñaten eta Joseren [Zabaleta] kasuan benetan egia izan dela hori. Ez telebistan-eta bakarrik, baizik niri ere pertsonalki horrela adierazi didatelako. Beste gainontzeko pilotariek ere, Jokinengandik [Altuna] hasita eta baita Beñat eta Joserengandik ere, babes guztia jasotzen, eta asko eskertzen diet.

Aurrera begira, noiz espero duzu berriro jokatzeko moduan izatea?

Ez naiz ausartzen epe konkreturik aipatzera. Beste lesioetan, batzuetan espero baino askoz azkarrago jarri naiz, bestetan beranduago. Esan didatenez, oraingoan itxura du abuztu hasieran, hor nonbait, bueltatzeko aukera izango dudala. Baina ez dakit zehazki. Garbi dudana da datari baino lesioa ondo sendatzeari emango diogula garrantzia. Behin final bat utzi eta gero ez du merezi edozein partidarengatik presaka ibiltzea, eta hemendik aurrera buru belarri izango gara horretan.

Finala ez baduzu jokatu ere, txapelketak bere alde positiboa ere izan duela esan daiteke. Hau da, erakutsi duzun jokoa, eta zure buruan irabazitako konfiantza.

Finala jokatzeko aukera ez izan arren, barruan badut halako harrotasun puntu bat, nire buruari erakutsi diodalako hor egon naitkeela. Ingurutik-eta askotan entzun izan dudana gauza bat da, baina ez dakit neronek erabat sinetsita nuen, eta nik uste dut honen lagundu didala horretan. Baneraman denbora bat esaten binaka ikusten nuela puntakoe-kin lehiatzen ari nintzela, maila nahiko egonkortua eta ona erakusten ari naizela, baina banakako modalitateetan falta zitzaidala koskatxo bat ematea edo nahi nuela behintzat. Eta uste dut saltotxo hori eman dudala. Datozen urteetarako esperientzi gehiagorekin, nire buruarekin gehiago sinetsita aterako naiz frontoira, eta iruditzen zait orokorrean aurtengo txapelketa positiboa izango dela aurrera begira, edo horrela nahiko nuke behintzat.



Iñaki Artolari animoak emateko pankartak jarri dituzte Alegian. I.G.L.

Artolarik gabeko finala

Ez da aparteko girorik izan Alegian, Iñaki Artolaren herrian, buruz buruko finala jokatu den egunean

I. Garcia Landa Alegia

Alegian nabaria zen atzo Iñaki Artolak ez zuela buruz buruko finala jokatzeko. Tabernetan ez zegoen giro berezirik, eta nabarmenezkoa herrian zehar zeuden pankartak ziren, Artolari animoak emanez.

Artolak egin duen moduan, bere herrikide eta zaleak ere pixkana joan dira finala ez jokatzearen kolpeari buelta ematen, eta aurrera begira herriko pilotari profesionalak etorriko diren txapelketetan buruz buruko honetan eman duen maila errepikatzea espero dute.

Herriko Intxurre pilota eskola-koak ez zuten hitzordu berezirik egin finala jarraitzeko, eta taber-

netan ere ez zen aparteko girorik. Hainbat pilotazale elkartu dira, kuadrillatan, finalaren jarraipena egiteko, baina herritarrek jokatu izan balu edukiko lukeen distirarik gabe.

Artola maitatua da herrian, eta horren erakusle dira Alegian jarritako dauden pankartak. *Iñaki hi beti gure txapelketa* dio horietako batek, Artola beraren kamisetak ondoan zintzilik dituela. *Aupa Iñaki* dio beste batek, eta *Aupa Artolatarrak* hirugarrenak. Udaletxearen balkoian, Intxurre pilota eskolakoek eskaini zioten pankarta dago jarrita, *Aupa Iñaki, hirekin getxerek* dioena. Animo guzti horiek bete diote Artolari eta lagunduko diote hurrengo txapelketetan.



Alegiako taberna batean, bezeroak buruz buruko finala ikusten. I.G.L.

TEILATUGAIN



teilatugain@gmail.com 649 093 397 ORDIZIA

Egurrezko egiturak • Baserri berritzeak
Teilatuko lanak eta Mantenimentua • Teilatu-hodiak • Fatxadak
Fatxada aireztatuak egiten ditugu SATE eta zeramikoarekin